

Haurren marrazkiak

Autor: Zabaleta Arangoa, Nerea (Maestra. Especialidad en Educación Infantil y Primaria., Profesora de Educación Infantil).

Público: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. **Materia:** Educación. **Idioma:** Euskera.

Título: Haurren marrazkiak.

Resumen

Pertsona bakoitzak marrazteko era desberdina dauka. Espontaneoki marrazten dutena da bereizten dituen beste guztietatik. Txikiak direnean, haurrak irakasleak marrazteko esan diena egiten dute, berak esandako pausoak jarraituz. Umeen marrazkiak artelanak izango dira, beraien kabuz eta bat-batekoak izatean marrazten direnean kontsidera daiteke. Hau da, modu espontaneo batetan marrazten dutenean, edo marraztera errazten zailenean edo motibatuak direnean deitzen zaio horrela. Umeak diren bezala eta marrazten dakiten bezala uzten zaie marrazten. Honela, umeak bizi diren egoera edo emozioak ikustatzen dira, beraiek bizi diren modua.

Palabras clave: Haurren marrazkiak.

Title: Haurren marrazkiak.

Abstract

Pertsona bakoitzak marrazteko era desberdina dauka. Espontaneoki marrazten dutena da bereizten dituen beste guztietatik. Txikiak direnean, haurrak irakasleak marrazteko esan diena egiten dute, berak esandako pausoak jarraituz. Umeen marrazkiak artelanak izango dira, beraien kabuz eta bat-batekoak izatean marrazten direnean kontsidera daiteke. Hau da, modu espontaneo batetan marrazten dutenean, edo marraztera errazten zailenean edo motibatuak direnean deitzen zaio horrela. Umeak diren bezala eta marrazten dakiten bezala uzten zaie marrazten. Honela, umeak bizi diren egoera edo emozioak ikustatzen dira, beraiek bizi diren modua.

Keywords: Haurren marrazkiak.

Recibido 2017-09-14; Aceptado 2017-09-22; Publicado 2017-10-25; Código PD: 088061

SARRERA

Nola marrazten dute umeek?

Pertsona bakoitzak marrazteko era desberdina dauka. Espontaneoki marrazten dutena da bereizten dituen beste guztietatik. Txikiak direnean, haurrak irakasleak marrazteko esan diena egiten dute, berak esandako pausoak jarraituz.

Umeen marrazkiak artelanak izango dira, beraien kabuz eta bat-batekoak izatean marrazten direnean kontsidera daiteke. Hau da, modu espontaneo batetan marrazten dutenean, edo marraztera errazten zailenean edo motibatuak direnean deitzen zaio horrela. Umeak diren bezala eta marrazten dakiten bezala uzten zaie marrazten. Honela, umeak bizi diren egoera edo emozioak ikustatzen dira, beraiek bizi diren modua.

Marrazten hasten direnean, borobil, hiruki, edo beste hainbat figura geometriko erabiltzen dute gauza desberdinak irudikatzerakoan edo gizaki baten gorputz atalak irudikatzeke; figura sinpleak eginez hasten dira.

Beranduago, lerro zuzena agertzen da (línea base). Modu honetan marrazkiko irudiak, nahiz animaliak nahiz zuhaitzak, marra honen gainean marraztuak dira, lurraren gainean. Lurzorua definitzen da. Marratik gertu dauden gauzak gertu daudenak dira eta marratik urrutiago daudenak berriz, urrunago daudenak. Marra, zeruarekin horizontalki paralelo joango da eta orriaren paralelo al dela ere.

Zortzi urteetatik aurrera, marra horizontala desagertu egiten da eta marraztutako objektuak marrazkiaren sakontasunean edo gertutasunean oinarritzen dira. Dena ez dago lerro horizontal baten gainean jarriarik. Marrazkiko irudiak, bertikaltasuna hartzen dute. Gainera, objektu bakoitzak dagokion tamaina dute gutxi gorabehera eta batek ez du bestea estaltzen, hots bakoitzak bere toki propioa dauka. Irudi guztiak beren kolore propioa daukate eta ondo definituak daude.

Zer marrazten duten umeek eta urteak aurrera pasa ahala dituzten aldaketak.

Umeen marrazkiak aztertzerakoan, gaien inguruan esan beharra dago, gehienak antzekoak izaten direla. Lehenengo urteetan, urte bat dutenean gutxi gorabehera, marrazten hasten direnetik hiru lau urte izatera iristen direneraino,

zirriborro aldia agertzen da. Aldi edo etapa honetan, marrazkiak ia-ia ez dute itxura handirik izaten marraztu nahi izaten dutenarekin.

Zirriborroaren etapa amaitzen dagoenean, lehendabiziko aldiz gizakiaren figura azaltzen hasten da. Ondoren, eguzkia izango litzake gehien marrazten den objektua, eta azkenik, etxeak, zuhaitzak, lainoak, eta landareak agertuko lirateke.

Urteak aurrera joan ahala, marrazkiak garatzen edo aldatzen doaz. Lau urteetatik zazpi urte bitartean, gizakiaren marrazkia agertzen da lehen aipatu dudan bezala baina hegan egongo balira bezala agertzen dira, pisurik izango ez balute bezala. Zortzi urteetatik aurrera, hauek zutik agertzen dira.

SAILKAPENA

Viktor Lowenfeld- en arabeko sailkapena

Lehenengo etapa, garabateoaren etapa (garabateo) daukagu. Lehen esan dudan bezala, etapa honetan gauzak desberdintzen hasten dira irudi grafikoetan. Normalean, gauzatzen diren irudiak gizakitxoak eta eguzkiak dira. Lowenfeld-ek 2 eta 4 urte bitartean kokatu du etapa hau. Garabateoaren azkeneko faseari, izendatutako garabateoa deritzo, hemen haurrak bere istorioak kontatzen hasten da.

Bigarren etapa, eskemaurrearen etapa da (etapa preesquemática). Etapa hau 4 eta 7 urte bitartean kokatua dago, eta bi ezugarri bereizten dira bertan: alde batetik, erraz ulertzen dira marraztuta dauden irudiak eta elementuak, eta bestetik, haurrak gizakiak marrazteko dituen eskemak aldarazten ditu, borobilen bidez, burua, ahoa, eta begiak marrazten dituzte eta marren bidez, sudurra ahoa eta gorputza. Honela animaliak edo gauzekin modu berbera jarraituz. Ondoren, hankak agertzen dira lerro zuzenen bitartez, eta hauen izkinak (zapatak edo eskuak) borobilen bitartez amaitzen dira. Erabilitako koloreak ez dute zentzu handirik izaten, hauek emozionalki aukeratuak dira.

Hirugarren etapa, etapa eskematikoa da (etapa esquemática). Etapa hau 7 eta 9 urte bitartean kokatua dago. Hemen, irudiak askoz ere garatuagoak daude, askoz ere zehaztasun gehiagorekin.

Errealismoaren etapa, 9 eta 11 urte bitartean ematen da. Aurretik komentatutako eskemako etapan erabiltzen diren grafikoak garatuagoak daude: gonak, prakak, etab normalean marra zuzen horizontal batean amaitzen dira. Marrazki baten atzean beste marrazki batzuk agertzen hasten dira.

11 urteetatik aurrera, bi etapa bereizten dira: lehenengoa, pseudorrealista da (11 eta 13 urte bitartean), eta bigarren etapa, erabakiaren etapa da (13 eta 17 urte bitartean). Garai honetan, haurrek beraien marrazkiekiko kritika kontzientea dute.

ONDORIOAK

Marrazkiak aztertzen

Jarraian urte desberdinetako ume batzuen marrazkiak aztertzen saiatuko nahiz.

Hasteko, lau urteko marrazkia aztertzen hasiko naiz. Marrazki honetan lanean zehar agertu diren hainbat gauza betetzen ditu. Bat, gizakiaren irudia agertzea da. Beste bat, marrazkiko elementuak, hegan bezala daudela ematen du hauek pisurik izango ez balute bezala. Garrantzikoena, garabateo garaia dela ziurtatzen dela da, zirriborro handien bitartez.

Ondoren datorren marrazkia, etapa eskematikoan sar genezake, egin duen umeak 7 urte baitauzka, Viktor Lowenfeld-ek egiten duen sailkapenaren arabera. Beren intelektua eta sormena garatu direla dio Lowenfeld-ek, eta honekin gauza bakoitzari eskema grafiko bat ematen zaiola esaten du. Marrazkia errealismoaren oso gertu dago, lerro zuzenarekiko finkatuta daude elementuak. Marrazkia askoz ere garatuago agertzen da, detaile gehiagorekin, nahiz eta oraindik oso zehatza ez izan.